Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 414

Otsailak 1, 2022

Gazteartean Bekak LGTBIQ+ kolektiboaren aukerak eta beharrak aztertuko ditu

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4-5 Ola sagardotegia
6 Osasungintza borrokan
7 Cliché
8 Kirolak: Maialen Ramos
9 Kirolak: Jon Azkue
10 ACUBI
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Gazteartean Beka
14 iGazte
15 Agenda

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1922ko otsailaren 5ean argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak orain dela 100 urte Irunen albiste ziren gertaerak biltzen ditu. "¡Así se escribe la historia!" idatzian "El Bidasoa" aldizkariko erredakzioak hauteskundeetan zuhurtziaz eta ahalik eta modu inpartzialenean jardungo duela ziurtatzen du. Jarraian, G. Echeverriak gerren sorrera eta izaeraz hausnartzen du, idatziaren amaieran gatazka belikoen desagerpena eskatzeko. Lehen orrialdearen amaieran, berriz, txaluparien eta txalupetako jagolearen arteko gatazka aipatzen da, gizon eta emakume batek telefonoz izandako eta telefonistak moztutako konferentziaren bitartez.

Aldizkariaren bigarren orrialdean kirol kronika ageri da. Kirol berrien artean, egun horretan bertan Atotxan jokatuko den partiduaren nondik norakoak laburtzen dira, irundarrak Donostiako partidura erosotasunez joan ahal izateko tren berezi bat antolatu dela azaltzeaz gainera. Ostean, "Futbolerías" izeneko atalean futbolarekin loturiko hainbat albiste labur biltzen dira. "Aduanerías" titularraren azpian beste behin ere aduanetako langileek bizi duten krisiarekin lotura estua duten gertaerak laburbiltzen dira. Ostean, Isidoro Fagoaga tenore beratarrak bere ibilbide profesionala egonkortze aldera egindako azken urrats garrantzitsuak kontatzen dira. Gainera, aldizkariaren zenbaki honetan "Desaparecido" izeneko liburuaren lehen atala argitaratzen da. Bigarren orrialdearen amaieran, berriz, "De todo un poco" atalean hainbat albiste labur biltzen dira. Bertan Benedicto XV. aita santuaren heriotza dela eta, Irunek omenaldietara egindako ekarpenak zerrendatzen dira, beste gai batzuk aipatu aurretik.

Aldizkariaren azken aurreko orrialdean "Charlas Femeninas", hiriko antzokien programazioa, "Notas Municipales", "Ecos de sociedad" eta "Noticias" atal aski ezagunak kontsultatu daitezke publizitatez betetako azken orrialdearen aurretik.

Argazkiak:

50299: Uranzu kalea urez bete zen 1933ko ekainaren 16ko ekaitzaren ondorioz eta argazkian kalearen erdian jendea ikusi daiteke txalupa batean.

28967: Irungo fabrikaren barruan pospoloak egiten zituzten emakumeak (XX. mendearen hasiera).

57771: Ezkerrean, Aduanako instalazioak ikusten dira, eta, eskuinean, Irungo trenbide-geltokia (irudia 1906a baino lehenagokoa da).

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala irun www.irun.org

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Udalak Julia Iruretagoyena berdintasun beka sortu du Irungo emakumeen ekarpen historikoa nabarmentzeko

Irungo Udalak Julia Iruretagoyena ikerketa bekaren lehen edizioa aurkeztu du. Beka Irungo emakumeen ekarpen historikoa nabarmentzeko sortu da. Arlo ugaritako ekarpenak onartuko ditu deialdiak eta ikerketa gauzatzeko epea gehienez bi urtekoa izango da. Lanak otsailaren 14ra arte aurkeztu daitezke.

Julia Iruretagoyena bekaren sorrerak Irungo emakumeen ekarpen historikoa nabarmendu nahi du lan, gizarte, ekonomia, politika edo kultura arloekin loturik. Miren Echeveste Berdintasuneko ordezkariak azaldu duenez, "Irungo emakumeek izandako rola aitortzea eta hiriko bizitzaren esparru guztietan egin zuten ekarpena ezagutzea oso garrantzitsua da gure arloarentzat eta Udalarentzat".

Bekara pertsona fisiko indibidualak edo taldeak aurkeztu ahalko dira, beti ere, Gizarte Zientzien alorreko edo ikerketaren xedeari lotutako goi- edo erdi-mailako unibertsitate titulua badute. Bi urtean behin deituko den beka honen zuzkidura ekonomikoa 18.000 euro da. Eskabideak eta lanaren aurkezpena

Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, eskabideak aurkezteko epea otsailaren 14ra arte luzatuko da. Interesdunek Udalaren egoitza elektronikoan aurkez ditzakete proposamenak, https://www.irun.org webgunean. Deialdiaren oinarriak udal webgunean kontsultatu daitezke.

Hautaketa-batzordearen kide izango dira Historiaren, Gizarte Antropologiaren edo Gizarte Zientzien alorreko ordezkari bat (ikerketa feministako lanetako erreferentea), berdintasun teknikari bat eta arloko ordezkaria. Proiektuaren jatorrizko memoria eta formatu digitaleko fitxategi bat betiko geratuko dira gordailututa Irungo Udaleko Artxibo Zerbitzuan, historiari buruzko informazio dokumentu gisa, eta herritarrek kontsultatzeko aukera izango dute.

Beka honekin Irungo Udalak eskaintzen dituen antzeko ekimenak osatuko dira. Izan ere, beste beka batzuk ere ematen ditu Udalak: Serapio Múgica beka, tokiko historia ikertzeko; arte garaikideari buruzko Ribera bekak; Gazteartean beka, gazteriaren alorrean eta, berrikiago, Iñigo Muguruza beka, euskal esparruko azken hamarkadetako musika modernoaren inguruko ikerketa sustatzera bideratua.

Julia Iruretagoyena

Bekaren sorrera aprobetxatuz, Julia Iruretagoyena omentzea erabaki du Berdintasun arloak. Julia Iruretagoyena Irunen jaio zen 1886an eta bere aita Irungo alkate errepublikanoa izan zen, Errepublika ezarri aurretik ere. Txikitatik izan zuen Julia Iruretagoyenak politikarekiko konpromisoa. Senarra hil eta gero hasi zen Juliaren benetako abentura. Madrilera joan zen bizitzera eta han, elkarte sozialistako kide egin zen eta ikasleen egoitzako zuzendaritzan lan egin zuen. Emakumeek hezkuntza jasotzeko eskubidearen alde borrokatu zen. Aurrena, Maria de Maeztu zirkuluan eta gero feminismoaren indargune izango zen Lyceum klubean. Julia Iruretagoyenaren laguna izan zen Victoria Kent, Estatu osoan unibertsitatera joan zen lehen emakumea. Bigarren Mundu Gerratik ihesi, Mexikora joan zen eta errepublikano erbesteratuei laguntzen lan egin zuen 1954an hil zen arte.

22. Korrika apirilaren 10ean igaroko da Irundik

22. Korrikak apirilaren 10ean zeharkatuko ditu Irungo kaleak. Lapurdiko lurretatik ibili ostean Santiago zubitik jasoko dute irundarrek lekukoa gaueko 00:46etan. 22. Korrika aplikazioan egitasmoaren ibilbide eta ordutegi guztiak kontsultatu daitezke.

Irunen, Hendaian eta Baztanen Korrikaren antolakuntzan inplikatutako kideek adierazi dutenez, "beste behin ere, euskarak mugarik ez duela erakutsiko dugu". Irundarrek apirilaren 10eko gaueko 00:46etan hartuko dute lekukoa Santiago Zubian. Ama Xantalen ermitatik 1:00etan igaroko da eta 1:30etan, berriz, lekukoak Mendeluko bidea hartuko du Hondarribian sartzeko. Hondarribiko kaleetatik ibili ostean, 2:30etan Irungo lurretara itzuliko da Korrika, 3:09etan Gurutzetik Oiartzunerantz zuzendu aurretik. Horrela, mezu sekretua eskuz esku pasako da Bidasoa ibaian barrena Donostiarako bidean utzi arte.

Antolatzaileek adierazi dutenez, "Behe Bidasoa Eskualdean gure ibaiaren alde bateko zein besteko bizilagunok lekukoa elkarri emango diogu goiz eta arrats, euri nahiz laino, ilargi zein eguzkipean". Gainera, Korrikan parte hartzeko moduak askotarikoak dira eta, horiek antolatzeko batzordeak egingo dira. Irungo batzordearen bilera otsailaren 11n egingo da, 18:30etan Irungo AEKn. Bileran 22. Korrikaren nondik norakoak eta Irunen egingo diren ekintzak ezagutzeko aukera izango da, hirirako beste ekitaldiak proposatzeaz gainera. Horrez gain, herrian egin beharreko lanak zerrendatu eta banatuko dira.

AEK-ko antolatzaileek erantsi dutenez, "Korrikaren helburuak bete daitezen, guztion ekarpena eta ahalegina dira beharrezkoak". Horrela, irundar guztien bultzada eta babesa Korrika aurrera ateratzeko ezinbestekoak direla gogoratu dute, bai eta Korrika Irundik igaroko dela jakinarazteko lanean laguntzeko.

20 URTE ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Ola sagardotegian denboraldia ekoizpena bezain oparoa izateko nahiarekin ireki dute txotxa

Dagoeneko Ola sagardotegiko kupelak husten hasi dira. Ohiturari jarraituz, San Anton eguna ardatz hartuta, urtarrilaren 23an Meakako sagardotegiko kupelak ireki eta mahaikideek urteko sagardo berria dastatzeko aukera izan dute. Jendeak gogoz erantzun dio Irungo sagardotegitik egindako gonbitari eta burdinolako mahaiak bete dira, pertsonen arteko distantzia gordez.

Egurrezko eserlekuetatik altxatu gabe izan bazen ere, erromeria giroa izan zen nagusi urtarrileko azken aurreko asteburuan Olan. Horrela, sagardotegiak urteko hitzordu garrantzitsuenetako bat berreskuratzeko aukera izan zuen, ohiturak neurri ezohikoekin tartekatu zituztelarik. Izan ere, sagardotegirako sarrera era tartekatuan egin zen, ohiko sarrera bateratuko jende pilaketak saihesteko. Era berean, kupelera hurbildu eta zuzenean sagardoa hartzeko debekuari aurre egiteko, aurreko denboraldian egindako moduan sagardoa mahaietan pitxerretan zerbitzatu zen.

Baserritarrei aintzatespena

Txotx irekieraren inguruan sortzen den giro berezia aprobetxatuz, Ola sagardotegiak baserritarrek sagardogileekin batera egindako lana eta ahalegina eskertu zituen. Ahaleginik gabeko saririk ez dagoenez, horri esker aurten Olak Ekolurra eta Euro-hostoa ziurtagiri ekologikoak lortu ditu. Lorpena ospatzeko, Olak sagardo berriarekin Etxezabal, Basobeltz eta Tristanea baserrien lana saritu nahi izan du.

“Garai bateko pentsamoldea aldatzen ari da eta emakumeek gero eta paper garrantzitsuagoa dute sagardotegietan”

Ainhoa Bengoetxea, Ola Sagardotegia

Esteban Aristi eta Eustakio Aristi aita-semeak Zarautzeko Basobeltz baserrian ekoizten dituzte Olan sagardoa egiteko erabiltzen diren sagarrak. Eustakio Aristik azaldu duenez, Olan jasotako omenaldia urte askotako lanaren aitorpena izan da, beraz, pozik hartu dute gonbidapena. Estebanek, Eustakioren aitak, gaineratu duenez, “beti da eskertzekoa zurekin batera lan egiten duen kideaz gogoratzea”. Basobeltz baserriak aspalditik egiten du lan Ola sagardotegiarekin, beraz, elkarrekin hasi zuten Eusko Label jatorri izena lortzeko prozesua eta, oraingoan, ekologikoa lortu dute.

Pandemia tartean badago ere, Eustakio Aristik Sagardotegiek baserritarrei ekoizpen guztia erosi dietela azaldu du. “Ostalaritza sektoreko profesionalen

egoera nahiko pattala dela ulertzen dugu”. Hala ere, Basobeltz baserriko semeak azaldu du, etxean bada ere, jendeak sagardoa kontsumitzen jarraitzea espero dutela.

Etorkizuna bermatuta dago

Egungo testuinguruak Sagardotegiak bizi dugun panorama aldakorrera moldatzera behartu ditu. Aldaketa garai hau aprobetxatuz, Iñaki Bengoetxeak sagardotegian lan egiten duten alabei dakien guztia erakutsi eta pixkanaka-pixkanaka familia negozioa haien esku uzten hasi da.

Ainhoa Bengoetxeak azaldu du bi direla batez ere sagardotegian lan egiten duten Iñakiren alabak eta haien asmoa dela negozioa aurrera ateratzen jarraitzea. “Garai bateko pentsamoldea aldatzen ari da eta emakumeek gero eta paper garrantzitsuagoa dute sagardotegietan”, adierazi du Iñakiren alabak. Berak sei urte zituen Ola sagardotegia ireki zenean. “Ikusiz asko ikasten da, baina praktika ere oso inportantea da”, gehitu du Ainhoa Bengoetxeak. Beraz, etxeko adibidea ondo ikasita, Ola sagardotegian aurtengo denboraldiaz gain, beste hainbat ere bermatuta daudela dirudi.

Iñaki Bengoetxea, Ola sagardotegia:

“Berriz jendea sagardotegira sagadorterapia egitera etorri dadila nahi dugu”

“Pitxerretan zerbitzatu arren, sagardoa kupel desberdinetatik hartzen”

“Aurten, eserita izan arren, deiadarrarekin sartu, txalaparta, bertsolariak eta trikitilariak izan ditugu”

Iñaki Bengoetxea, Ola Sagardotegiko nagusia

Ola Sagardotegiak 2022ko sagardotegi denboraldiari hasiera eman dio. Iñaki Bengoetxea sagardogileak sagar ekoizpen aldetik urte oso emankorra izan dela azaldu du. Bengoetxeak adierazi duenez, emaitza sagardo mehe eta leuna izan da, aise edateko modukoa. Ola Sagardotegiko nagusiak denboraldi berriko erronkei aurre egiteko eta pandemiaren murriztapenetara egokitzeko nola moldatuko diren azaldu du.

Sagardo denboraldi ezohikoa izan arren, lana aurrera ateratzea lortu duzue?

Bai, ausartak gara, ezinezkoa baita bi urteren ostean aurreko egoera berdinean jarraitzea. Horrenbeste sagardo egin dugu eta nolabait arrankatu behar genuen. Ausardiarik ez zaigu falta, eta beraz, aurrera egitea erabaki dugu.

Bi urte dira pandemia hasi zenetik, beraz, aurreko urtetako esperientzia baliagarria zaizue erronka berriei aurre egiteko?

Bai, esperientzia lagun dugu. Ondo dakigu zer neurri bete behar ditugun, hau da, zenbaterainoko edukiera dugun eta musukoa erabili behar dugula. Dena den, gehiegi ez beldurtzen saiatzen gera, bestela, burutik izorratuko garelako.

Zeintzuk dira aurtengo denboraldiko nobedadeak?

Bi kupel dauzkagu, bi sagar mota ezberdinekin egindakoak. Bat, Urtebi Txikiarekin eta Patzuloarekin eta, bestea, azkena egin nuena, Urdinarekin eta Errezilarekin. Esango nuke hasierako sagardo horiek meheagoak direla, baina gehiago edateko ere ondo daudela esango nuke.

Jendea ondo ohitu da sagardoa eserita eta pitxerretan kontsumitzera?

Aurretik beste ohiturak zituztenentzako ez da hain erraza izan, baina horrela edateak lan gutxiago eskatzen duenez, alfer batzuek pozik hartu dute. Pitxerretan zerbitzatu arren, sagardoa kupel desberdinetatik hartzen dugu, beraz, jendeak kupel ezberdinetako sagardoa dastatzeko aukera du. Aukera hori izanda jendea dezente lasaitzen da eta egungo egoera zein den nahiko ondo ulertzen du.

Sagardo ekoizpen handiko urtea izan da, ezta?

Batzuek esaten duten moduan, sagar urtea izan da. Gaztelaniaz bada kalitatea kantitatearekin alderatzen dituen esaera zahar bat. Guk kalitate gehiago nahiko genuke kantitate asko baino, baina sagarrondo batek mila sagar ale eman baditu eta normalean 600 izan ohi baditu, normala da kalitate aldetik meheagoak izatea eta azukre gutxiago izatea. Dena den, asko edateko nahiko suabea da, gradu laurden bat edo gutxiago daukalako eta hori aise edaten da. Nik esan ohi dudan moduan, horrela parrandan aritzeko denbora gehiago izango dugu.

Erraza da sagar ekoizpena handia denean soberakinak kudeatzea?

Hori kudeatzen hasi beharrean gaude. Nik joan den urtean nire probak egin nituen, ni bezalako beste bi edo hiru erorekin elkartu nintzen, bakanketa egiten aritu ginen eta nik uste bide horretatik jarraitu behar dugula, Europan ere prozedura hori erabiltzen ari baitira. Beraz, bi urtean behin, sagar asko dagoen urtean, pixka bat bakandu beharko genuke, sagarrondoa bera nekatu ez dadin eta dauzkan aleak ondo hazi daitezen. Ezin da besterik egin, hemengo sagar moten joera hori baita. Gaur egun dauzkagun ontziratze eta hozte sistemekin ez legoke arazorik bi urtetik behin sagardoa ontzeko.

Zergatik erabaki duzue aurten baserritarrak omentzea?

Beraiek gurekin itsasontzi berean sartu ziren, lehenik eta behin Euskal Sagardoa egiteko eta orain ekologikoan. Izan ere, ziurtagiri hori lortzeko hiru urte eman ditugu lanean. Horri esker zigilu ekologikoak lortu ditugu, bai Euro-hostoa eta bai Ekolurra. Ekolurrak esan nahi du bertako sagarra dela, zeren ekologikoak izan arren, sagarrak, adibidez, Frantziatik ekarri daitezke. Beraz, Ekolurra ziurtagiriarekin kontsumitzaileek badakite hemen bertako sagarrarekin egindako sagardoa kontsumitzen ari direla. Egindako ahalegin guztien ondoren, txotx irekiera bat beraiek egitea merezi zutela esan nien. Proposamena pozik hartu zuten eta nik uste merezi dutela, guztiok itsasontzi berean sartuta egon arren, batera arraun egitea garrantzitsua da. Lehengaiak oso garrantzitsuak dira eta baita bertako sagastiak izatea.

Zer garrantzi du sagardotegi batentzat ziurtagiri ekologikoaren lorpenak?

Niretzako garrantzi handia du. Nik beti maitatu izan du nire kultura, nire ingurua eta inguratzen nauen guztiarekiko sentimendu handiak ditut. Hemen jaio nintzen eta 62 urte daramatzat hemen bizitzen. Nire sustraiak, arbolenak bezalakoak, bertan errotuta daude. Mutikotan ezagutu nuen etxe guztietan sagastiak zeudela, nahiz eta soilik etxeko kontsumorako izan. Ezti eta erleekin gauza bera gertatzen zen, baina gero ohitura guzti horien gainbehera etorri zen. Orain, aldiz, ohitura horiek berreskuratzen ari direla ikusteak poz izugarria eragiten dit eta gure ingurugiroa nola berreskuratzen ari garen ikusteak asko pozten nau. Ez da ahaztu behar hiritarrentzat oso polita izan daitekeela natura, baina landa inguruan lurrak landu eta zainduko dituen baserritarrik edo animaliarik egon ezean, dena ez dela hain polita izango.

Sagardoaz gain, murriztapen neurriak beteta, sagardotegi giroa bermatuta dago?

Sagardotegia ahalik eta modu txukunenean antolatzen ahalegindu gara. Alde batetik, sagarra eta ingurugiroa dago. Gero, sagardoa egiteko unea da eta, azkenik, sagardoa dastatzerakoan festa giroa eta gure kultura dago. Aurten, eserita izan arren, deiadarrarekin sartu, txalaparta, bertsolariak eta trikitilariak izan ditugu. San Anton jai hau beti asko bizi izan dugu eta, eserita bada ere, uste genuen erromeria ukitua eman behar geniola. Bestela, birusa eta beldurraz gain, gure kultura zapaltzen ari gara.

Noiz arte luzatuko duzue Sagardo Denboraldia?

Maiatzaren azkenera arte, beti egin izan dugun bezala. Ea aurten orain arte egindako moduan, sagardotegian beste ekintza batzuk antolatzeko aukerarik dugun. Izan ere, aurreko urteetan bertso-afariak, Sagarraren Eguna edo abuztuan pilota txapelketa antolatzen genituen. Azken batean, Ola sagardotegiak ekintza dezente antolatzen zituen.

Zer eskatzen diozu aurtengo sagardo denboraldiari?

Lehenbizi denok osasuna izan dezagula. Beldur puntu hau galdu eta aurrera egin behar dugu. Berriz jendea sagardotegira sagadoterapia egitera etorri dadila nahi dugu, beraz, Ola sagardotegira etorri nahi duenak hementxe dauka gure gonbidapena.

Bidasoa eskualdeko osasungintza leher eginda dago

Haserrea eta ukazioa ostiralero Bidasoa Ospitaleko ate nagusiaren aurrean biltzen dira. Osasun zentroko langileek zein eskualdeko hiritarrek 18 hilabetez Bidasoa ebakuntza gelarik gabe uztearen eta Donostiaraino joan beharraren aurka daude. Mezu argia da: Bidasoko langileak borrokan, SOS ebakuntza-gelak. Hori guztia, lehen mailako arretak eta, oro har, osasungintza sistemak gehiago ezin duenean.

Ospitaleko langile zein herritarrek elkarrekin eusten diote pankartetan idatzitako aldarrikapen mezuei, Bidasoa eskualdeko biztanleria osoari eragiten dion egoera salatzeko. Hilabete luzeak daramatzate agintarien asmoak salatzen eta erantzunik gabeko galderen aurrean azalpenak eskatzen. Eskakizun nagusia da Bidasoa Ospitaleko bloke kirurgikoaren eraberritze kontratua bertan behera uztea eta lana egikaritzeko beste irtenbide bat bilatzea.

Lanak Construcciones Adolfo Sobrino SA enpresari esleitu zaizkio eta 18 hilabeteko iraupena izatea aurreikusten da. Egungo plangintzaren arabera, ebakuntza gelarik ez dagoen bitartean, oinarrizko zerbitzuak Donostiako Onkologikora birbideratuko dira. Hondarribiko eta Irungo Udalek Osasun saileko ordezkariekin bilerak eskatu dituzte, baina emaitzarik gabe.

Osasun Bidasoa

Abenduaren 11n Irunen Osasun agintari nagusien erabakia salatzeko manifestaldi jendetsua egin zen. Ordutik, kontratazio prozesu "ilunaren, inprobisatuaren eta inposatuaren" aurka egiteko ekintzekin aurrera jarraitu da. Besteak beste, Osasun Bidasoa plataforma sortu dute Bidasoko Ospitalearen etorkizunaz kezkatutako hainbat elkartek. Plataformatik adierazi dutenez, "arazo sozial" bat da, profesional zein hiritarrei eragiten diena eta Osasun Bidasoa plataformaren helburua negoziazio mahai ireki bat eratzea da, alde guztientzat egokia den akordio bat lortzeko.

Osasun Bidasoa plataformatik salatu denez, Osasun agintariek jaramonik egin ez arren, Bidasoa Ospitaleko bloke kirurgikoa eraberritzeko beste aukera batzuk daude. Izan ere, Zumarragako Ospitalea birmoldatzeko plangintzarekin antzeko zerbait gertatu zen. Zumarragan, ordea, obraren lizitazioa gelditu eta solairu berri bat sortzeko prozesua iraultzea lortu zuten. Bidasoko kasuan, eraberritze lanek iraun bitartean, plataformak uste du eraikin erantsi bat sortzea konponbide egokia izan daitekeela, eraikin hori bera baliagarria izan litekeelako etorkizunean ospitaleko instalazioak handitzeko eta indartzeko.

Mariaje Alfonso, Bidasoa Ospitaleko ebakuntza geletako erizainak azaldu duenez, "lehenengoz ahotsa goratu genuenetik gure eskakizunak ez dira aldatu". Erizainak Osasun Bidasoa plataformaren izenean salatu du gauzak korrika eta presaka eta ezkutuan egiten ari direla, gardentasunik gabe. Adibide gisa, Mariaje Alfonsok gogoratu du azaroan Irungo Udalak Josune Sagardui Osasun sailburuarekin bilera eskatu zuela eta abenduan plataformak gauza bera egin zuela eta biek ala biek erantzunik ere jaso ez dutela gogoratu du.

Erizainak azaldu duenez, ez da onargarria gauzak halamoduan egitea eta gero erreguka etortzea. Osasun sailburuaren eta Ospitaleko gerentziaren erantzun ezaren aurrean, Bidasoa Ospitalean antolatzen diren elkarretaratzeen bitartez biztanleriaren arreta erakarri nahi da, Mariaje Alfonsoren hitzetan "jende askok oraindik ez baitu ezagutzen Bidasoa Ospitalean egin nahi dena". Elkarretaratzeak ostiralero egiten dira, Bidasoa Ospitaleko ate nagusiaren aurrean eguerdiko 14:00etan. Martxoaren 19rako, berriz, beste manifestazio jendetsu bat antolatzeko asmoa dutela iragarri du Osasun Bidasoa plataformako erizainak. Aurretik, otsailaren 2an arratsaldeko 18:00etarako beste elkarretaratze bat antolatu du plataformak. "Eskualde bati horrelako zerbait egiten zaion lehenengo aldia da eta Bidasoko biztanleriak ez du bazterkeria hau onartuko", gaineratu du erizainak.

Lehen arreta gainezka

Bidasoko eskualdeari eta Bortziriei eragiten dien ebakuntza gelen auziaz gainera, lehen mailako arretak ere ez du bere unerik goxoena bizi. Hala erakusten dute ostegunetan Dunboa eta Iturrino Anaiak anbulatorioen atarian egiten diren elkarretaratzeek. Ebakuntza gelen arazoarekin gertatu bezala, oraingoan ere osasun arloko langileek eta hiritarrek indarrak batu dituzte egoera salatzeko. Gainera, Txingudiko Pentsiodunen Mugimenduak gainontzeko hiritarrek lau haizetara zabaldutako eskakizunak babestu ditu. Aldarrikapenetan kalitatezko osasun publikoa defendatu da, pribatizazioari uko egin zaio, lehen mailako arretaren nekea salatu da eta segurtasun handiagoa eskatu da.

Politikarien eskakizunak

Hiritarren ahotsak entzunda, udal alderdi politikoek adierazpen ia bateratua sinatu dute. Irungo Sozialistak, Elkarrekin-Irun-Podemos/Ezker Anitza, Irungo EH Bildu eta Udal Talde Popularra adierazpenera batu dira, lau eskakizun nagusi izenpetu dituztelarik. Batetik, osasun zentroetan lehen mailako osasun zerbitzuak indartzea nahi dute, "premiazko lehentasuna" baita giza baliabide eta baliabide material nahikoak izatea. Era berean, aurrez aurreko arretaren itzulera eskatu dute, diagnostiko goiztiarrak egiteaz gainera, patologia larriak eta kronikoak dituzten pazienteek arreta berezia jaso dezaten.

Bestetik, pandemiarekin loturik, COVID-19arekin lotutako patologiak diagnostikatu eta tratatzeko ibilbideak indartzeko neurriak hartu behar direla salatu dute. Azken eskaera test azkarrekin lotuta dago, testak baldintza egokietan egiteko aukera bermatzeaz gain, baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen testen kostua diruz lagundu dadin edo doakotasuna aztertu dadin.

Elkarretaratzeen salaketek eta hainbat arlotatik egin diren eskakizunek agerian utzi dute osasungintzak Bidasoa eskualdean ez duela bere garai onena bizi. Bien bitartean, merezi dituzten osasun arreta eta baliabideak jaso ahal izateko esperoan jarraituko dute, alde batera utzitako galderentzako erantzunen bila.

Cliché musika talde irundarrak bere lehen abestia kaleratu du

Cliché musika talde irundarrak bere lehen abestia kaleratu berri du. Urtarrilaren 28an estreinatu zen "Conjuro" izeneko abestia, bideoklip eta guzti. Asier Piera abeslariak, Rubén de la Iglesia gitarra-joleak eta Ander Sáenz perkusionistak osatutako taldea arrakasta berrien bila abiatuko da. Musikariek, pandemiaren oztopoak gaindituta, eszenatokietara itzuli eta oraindik aurkezteko dituzten abesti berriak ezagutarazteko gogo handia adierazi dute

Zertan ibili zarete azken elkarrizketa egin genuenetik?

Azken elkarrizketa egin genuenetik estudioan sartuta egon gara, abesti berriak grabatzen. Gainera, bideoklip bat sortu dugu, kontzertuak eman ditugu eta konposaketa berriak sortzen jarraitu dugu. Egoera konplexua bizitzea egokitu zaigun arren, ahal izan dugun neurrian asko mugitu gara eta gauza dezente egin ditugu.

Urtarrilaren 28an zuen lehen singela kaleratu zenuten. Erraza izan da singela sortzea eta kaleratzea?

Bai eta ez. Guretzat oso garrantzitsua izan da talde on baten oinarriak sortzea, izan ere, jende asko daukagu gure atzetik lanean. Besteak beste, diskografikak, banatzaileek eta diseinatzaileek egiten duten lana funtsezkoa da, beste askorena aipatu gabe. Horretarako, lantalde profesional bat sortzea funtsezkoa dela iruditzen zaigu eta bidean erabaki asko hartu behar dira. Aurretik talde on bat sortu duzunean erabakiak hartzea errazagoa da, orokorrean erabakiak hartzea ez baita batere erraza.

Zer kontatu dezakezue "Conjuro" singelari buruz?

Uste dugu "Conjuro" abestia arnasa hartzeko eta libre izateko abesti bat dela. Abestian bertan sentimendu asko nahasten dira, beraz, entzule bakoitzak nahi dituen sentimenduak aukeratu ditzake bere araoa edo konjurua sortzeko. Hasieran abesti lasaia dela iruditu dezake, baina pixkanaka erritmoa hartzen doa eta abestia guztiz aldatzen da.

Singelaz gain, bideoklipa sortu duzue ere. Horrelako prozesu batean murgildu zareten lehen aldia izan da?

Bideokliparen bitartez abestiaren mezua zein den azaltzen saiatu gara. Bertan protagonistak haurrak dira, izan ere, prentsatzen dugu haurrek alaitasuna eta axolagabekeria helarazten dituztela. Beraz, aurreiritziak alde batera uzteko balio duen kanta dela uste dugu. Hori islatzeko bideoklipean haurrak agertzea oso egokia izan zitekeela bururatu zitzaigun, umeek ez baitute aurreiritzirik. Gainera, bideoklipa oso leku politean grabatu genuen, zehazki, Markinan, Bizkaian. "La Oreja de Van Gogh" taldearen azken bideoklipa ere leku berean grabatuta dago. Beraz, guztiok gure Youtube kanala bisitatzera eta abesti berria ikustera gonbidatzen zaituztegu.

Lan guzti hau egiteko beste profesionalen laguntza behar izan duzue?

Bai, esandako moduan, gure atzetik jende asko dago. Adibidez, kontratatu nahi ditugun beste musikariak, diskografika, banatzailea, promozioaz arduratzen den jendea, karatula egin duen diseinatzailea,... Azken batean, guk gure helburua lortu ahal izateko beharrezkoa izan da jende askoren lana. Lana aurrera ateratzeko talde bat sortzea derrigorrezkoa da eta hemendik haiek guztiek egunero egiten duten lana eskertu nahi diegu.

Singela aurkezteko ekintza berezirik prestatu duzue?

Bai, alde batetik, promozio lan handia egingo dugu. Online promozioa Youtuben eta Spotify bidez egingo dugu. Lan horrek abestia zein bideoklipa ondo kokatzen eta ezagutarazten lagunduko digu. Bestetik, offline promozioa egiteko aprobetxatuko dugu. Horretarako, Irunero aldizkariko elkarrizketaz gain, Bilbon beste hainbat elkarrizketa eskainiko ditugu hainbat irrati eta telebistatan. Promozioaren barnean gehien gustatzen zaigun atala kontzertuak ematearena da, bertan jendeak gure abestiak zuzenean entzuteko aukera baitu.

Hiru taldekide izanda, erabakiak hartzea konplexuagoa da?

Egia esan, gure artean oso ondo moldatzen gara. Txikitatik elkar ezagutzen dugu eta, adibidez, konposaketak egiteko momentuan oso ondo ulertzen dugu elkar. Dinamika ona dugu eta ez dugu arazorik izaten.

Zer behar da abesti bat arrakastatsua izan dadin?

Oso galdera ona da, baina uste dugu ez duela erantzunik edo behintzat guk ez daukagu batere garbi. Guk gustuko dugun musika egiten dugu eta, noski, jendeak ere gure lana atsegin izatea nahiko genuke. Hala ere, argi dugu ez dugula gure musika estiloa aldatuko soilik jarraitzaile gehiago lortzeko. Gaur egun arrakasta izan nahi baduzu tranpa egin behar duzu eta ez dugu uste gure estiloa horretara hurbiltzeko aldatuko dugunik.

Nola egin diozue aurre pandemiak kulturaren munduan eragindako etenaldiari?

Bai, taldea justu pandemiaren aurretik sortu zen, baina egia da pandemiako urteak izan arren, azken bi urteetan asko hazi garela. Beraz, testuinguru zail honetan mugitzera ohitu gara eta aukera bakarra momentuko egoerara moldatzea da. Kontzerturik egin ezin badaiteke, abesti berriak konposatzeko, kantuak grabatzeko edo bideoklipak pentsatzeko aprobetxatu behar da denbora.

Singelaren ostean, diskoa dator?

Bai, diskoa lehenago edo geroago aterako dugu, hori argi dago. Poliki-poliki gauza berriak egiten ari gara eta hilero edo bi hilabetean behin gehienez abesti berriak kaleratu nahi ditugu. Horrela, abesti dezente aurkeztu ditugunean diskoa ateratzeko unea izango da.

Zein beste proiektu dauzkazue 2022. urterako?

Gure helburua garbi daukagu eta hori lortu ahal izateko kontzertuak ematen, abesti berriak sortzen eta kaleratzen, bideoklipak grabatzen eta konposaketa berriak sortzen jarraitu nahi dugu. Beraz, jendeak gure pausuak jarraitzea espero dugu.

Maialen Ramos, judoka:

“Judoa banakako kirola da, baina taldea ere ezinbestekoa da”

Maialen Ramos Ama Guadalupekoa Judo Klubeko kirolaria da. 2021ean Espainiako Txapelketan brontzezko domina lortu zuen hirugarren urtez jarraian. Irundarrak judoaren munduarekin loturik dituen proiektuak azaldu ditu.

Noiz eta nola hasi zinen judoa praktikatzen?
Judoa txikitatik praktikatu dudan kirola da. Zazpi urte nituenean hartu nituen lehen judo eskolak. Hondarribian ikasten nuenez eta nire gurasoek bertan lan egiten zutenez, haientzat erosoagoa zen nik kirola bertan egitea. Nire gurasoek eskolan eskainitako aukeren artean judoa niretzat aukerarik egokiena izan zitekeela pentsatu zuten. Orain 23 urte ditut eta denbora honetan guztian kirol asko probatu ditudan arren, kirol honekin hasi nintzen eta hemen geratu naiz.

Orain gutxi Espainiako Txapelketan brontzezko domina lortu duzu hirugarren aldiz. Nola egin duzu?
Azkeneko txapelketa senior mailan brontzezko domina lortu dudan hirugarren aldia izan da. 2012an nire lehen domina lortu nuen Espainiako Txapelketa batean eta orduan urrezko domina irabazi nuen. Orain, guztira, Espainiako 7 domina ditut eta, egia esan, oso pozik nago podiumean molestatzen jarraitzeaz.

Berriro urrezkoa edo zilarrezkoa lortzeko aukerarik ikusten duzu?
Bai, nik uste oraindik aukerak badauzkadala. Finalaurrekoan nire akats batengatik galdu nuen borroka eta pena handia eman zidan. Finalera iristeko aukerak nituela pentsatzera iritsi nintzen, baina ezinezkoa izan zen. Egia da lehenengo postuan geratu zena guztien gainetik dagoela, asko entrenatzen baitu. Izan ere, behin maila batera iristen zarenean, zure bizitzaren zati handi bat kirolari eskaini behar diozu helburu jakin batzuk lortu ahal izateko. Laburbilduz, finalera sartzeko aukerekin ikusten dut nire burua, baina garaipena segundo kontua da.

Nola prestatzen zara maila handiko txapelketetan lehiatzeko?
Judoa banakako kirola da, baina taldea ere ezinbestekoa da. Azken batean, taldeak eskaintzen dizkizun aukerak eta denbora ezinbestekoak dira. Taldeak fisikoa lantzeko balio dizu, judo teknikak eta giltzak landu eta maila bakoitzera horiek nola egokitu daitezkeen ikasteko. Lehiaketetako borrokak aurretiaz prestatu behar dituzu eta ordu asko sartzen ditugu tatamian zein entrenamendu fisikoetan.

Zeintzuk dira zure hurrengo txapelketak?
Orain Ziklo Olinpikoa hasiko da eta horretan parte hartu ahal izateko dirutza ordaindu behar da. Aurten ez dakit zikloan sartzera iritsiko naizen edo ez, oraingo aurretiko hautaketa fasean sartu naiz ekainean Joko Mediterraneoetara joateko, baina ez dakit sailkatzea lortuko dudan, baina saiatuko naiz. Bestetik, aurten, beste taldekide batekin batera, kluba hartu dut eta orain klubean irakasle lanetan nabil. Nire ikasleen helburuak ere nire helburuak dira.

Irakasle ikasketak egin dituzunez errazagoa izan zaizu klubaz arduratzea?
Bai, ikasketak oin dela 2 urte amaitu nituen, Lehen Hezkuntzako ikasketak, eta orain Haur Hezkuntzakoak egiten ari naiz. Aurten kluba hartzeko pausua ematea erabaki dut eta oso pozik nago, haur txiki asko dauzkagulako. Lehiaketei berriro ekiteak ilusioa piztu du haurrengan. Gainera, judoa kontaktuko kirola denez, beti jarduera berreskuratzen azkenak izan gara. Datorren hilabetean infantilen txapelketak hastea espero dugu. Haiek pozik ikusita ni ere pozik nago.

Zer behar da judoka on bat izateko?
Batik bat, gogoa izatea. Taldekide asko ezagutu ditut eta gogoa izateaz gainera, funtsezkoa da irakasleengan konfiantza izatea. Edonor izan daiteke judoan borrokak edo txapelketak irabazteko gai. Beste kirol batzuetan argiago dago kirolari onek izan beharreko ezaugarriak, judoan, aldiz, kirolariak pisuka sailkatzen direnez, pertsona bakoitzak bere berezitasunak ditu. Horregatik, bakoitzak judoa bere izaerara edo bertuteetara egokituko du. Nesken eta mutilen judoa nahiko desberdina da, nesken kasuan pisu altuagoetan motelagoak diren arren, giltzetan hankak asko erabiltzen dira. Mutiletan, berriz, zenbat eta pisu handiagoa izan orduan eta handiagoa da sakrifizioa ere. Nik egiten dudan judoak mutilen judoarekin antzekotasun gehiago dauzka, mutilekin asko entrenatu dudalako.

Azken urteetan judoan neska zein mutilen aukerak berdindu direla uste duzu?
Egia da kirol askotan desberdintasun izugarriak daudela, bai soldatan edo baliabideetan. Nik judoan nabilenetik ez dut horrelako alderik ikusi. Betidanik neskak eta mutilek ordu berdinean eta aukera berdinekin entrenatu eta lehiatu gara. Diru-sarien kasuan ere gauza bera gertatzen da. Izan ere, kopuru orokorra kirolari guztien artean zuzen banatzen da, kirolaria gizona edo emakumea den edo zein mailatakoa den kontuan hartu gabe. Nire erreferenteei buruz galdetzen badidazu, emakumeak zein gizonak aipatuko nizkizuke. Hori horrela da txikitatik horrela ikustarazten digutelako.

Judoa askok uste bezain kirol bortitza da?
Ez, hori ez da horrela. Nire lagun guztiek esan ohi didate nik haiek defendatuko ditudala edo nirekin ez dutela arazorik izan nahi, nik astindu bat emateko beldur direlako. Judoa eraso kirola izan ordez, defentsa ekintza bat da, zure buruaz harro egoteko eta seguru egoteko balio du. Gurasoei ziurtatzen diet beren haurrek erortzen ikasiko dutela, minik hartu gabe eta, oso garrantzitsua, gainontzekoei minik eman gabe. Elkar jotzea debekatuta dago, urrezko araua da. Haurrei argi eta garbi esaten diet kalean edo judoa egiten ari ez direnean, indarra eta dakizkiten trikimailuak erabiltzea gaizki dagoela, gainontzekoak bota edo mintzeko erabiltzen badute. Ondo baino hobeto dakigu zer egin dezakegun eta, ziurtasun hori duzunean, zure indarra mina emateko gutxiago erabiltzen duzula uste dut.

caser cuidados

INFORMA ZAITEZ!

Etxez etxeko laguntza

EDOZEIN EGOERATAN:
- Menpekotasunean
- Ahalmen urritasunean
- Konbaleszentzia edo gaixotasunean

EDOZEIN DENBORAZ
- Aldi baterakoa
- Iraunkorra

EDONON LAGUNTZEN
- Etxean edo etxetik kanpo
- Ospitalean
- Egoitzan
- Enpresan

Jon Azkue, Bidasoa Iruneko jokalaria:

“Otsaila hilabete gogor bezain polita izango da”

Bidasoa Irun taldea prest dago denboraldiko bigarren zatiari ekiteko. Bigarren zatiaren hasieran otsaila eskubaloi talde irundarrarentzako erronkez beterik dator, partidu eta bidaia ugariak entrenamendu exkaxekin tartekatu beharko dituztelako. Jon Azkue jokalariak denboraldiaren lehen zatiaren balorazioa egin du.

Nola baloratuko zenuke urteko lehen zatia?
Nire ustez orokorrean lehenengo zatia nahiko ona izan da. Egia da agian Europako lehiaketan partiduren batean punturen bat gehiago lortu izana falta izan zaigula. Punturen bat gehiago lortu izan bagenu ondo legoke. Uste dut Europa mailako lorpenik garrantzitsuena Suitzaren aurkako partidua irabaztea izan zela, izan ere, horri esker laugarren postuan gaude. Oraindik borrokan jarraitzen dugu, oraindik hurrengo fasera pasatzeko aukerak dauzkagulako. Gainerakoan, urte oso ona izan dela uste dugu, Ligan oso maila ona eman dugu, puntu asko lortu ditugu eta nire ustez lehenengo zatia nahiko txukuna izan da.

Eguberrietako atsedena indarrak berreskuratzeko balio izan dizue?
Bai, batez ere, oporren aurreko azken hilabetea nahiko gogorra izan zen, azken zati horretan nahiko denbora geldirik egon ginelako. Horren ostean, partidu asko izan genituen eta uste dugu sei hilabeteren ostean Gabonetako geldialdia ondo etorri zaigula. Etenaldian berriro indarrak hartu ditugu eta bigarren zati on bati ekin diogu.

Urtarrilaren 10ean entrenamenduetara itzuli zineten. Nolakoa izan zen itzulera?
Egia esan, oso ona. Talde mailan ez dugu ia atzeman denbora batez geldirik egon garenik, hasieratik oso entrenamendu onak egin baititugu. Aurreko astean jokatutako partidua, ordea, ez zen guk nahi genuen bezain ondo atera. Hala ere, hainbat gauza lantzeko balio izan zigun. Nire ustez urtarrilak aukera eman digu gauzak landu, geldi egondako denbora berreskuratu eta, etenaldia atzeman gabe, abenduan ginen talde bera izatera itzultzeko. Nik uste bide horretan ondo goazela eta taldea ondo lan egiten ari dela.

Partidu erritmora itzultzeko entrenamendu berezirik egin duzue?
Otsaila oso hilabete gogorra izango da, partidu kopuru handia izango dugula aurreikusten da. Gainera, Errege Kopako kanporaketa orduan erabakiko da eta Europako zenbait partidu ere izango ditugu, denboraldiaren lehen zatian atzeratutakoak berreskuratzeko. Urtarrileko helburu nagusia behintzat abenduan ginen talde bera izatera iristea zen edo, ahal izatekotan, hobeagoa. Helburu nagusia 15 eguneko geldialdi hori ez antzematea zen. Gustura gaude egindako lanarekin, oso ondo entrenatzen ari gara eta datorrenari aurre egiteko guztiz prest gaude.

Otsaileko partidu kopuru handia ikusita, beldur apur bat sentitzen duzue?
Bai, inpresio apur bat ematen digu. Izan ere, aste honetan entrenatzaileak otsaileko antolaketaren plangintza bidali digu eta hilabete osoa partiduz josita dago eta entrenamenduak, berriz, oso gutxi dira. Horregatik, urtarrilean zehar entrenamenduetan egin dugun lana oso garrantzitsua da, gero ezingo baitugu entrenatu. Bertigo apur bat ematen du hainbeste partidu jarraian ikusteak. Nik uste taldea erronkari aurre egiteko prest dagoela. Gainera, partidu oso zailak dauzkagu, tartean Errege Kopako kanporaketa eta nik uste garrantzi berezia eman behar zaiola. Azken urteetan Bidasoa Irunek final-zortziren horretara iristea lortu du eta berriro hala izatea nahiko genuke. Europan atzeratutako partiduetan ASOBAL kopako borroka hor egongo da. Otsaila hilabete gogor bezain polita izango da. Entrenatzea ez zaigu hainbeste gustatzen, partiduak jokatzea bai eta otsailean horretarako aukera asko izango ditugu.

Partidu batzuei besteei baino garrantzi handiagoa emango diezue?
Seguru baietz. Egia da guk partidu guztiak irabazi nahi ditugula, baina ezinbestean partidu batzuk besteak baino garrantzitsuagoak dira. Bidasoa Irun taldea azken urteetan maila gorenean mantendu bada partidu guztiei garrantzi bera eman dielako izan da. Errege Kopako kanporaketa garrantzitsua bada, ezin dugu ASOBAL liga guztiz ahaztu, bigarren postua lortu nahi badugu. Europan gauza bera gertatzen da, sailkapeneko laugarren postura edo gorago iritsi nahi badugu ezin ditugu gainontzeko partidu guztiak ahaztu. Partidu asko izango dira bata bestearen jarrian, baina bakoitzari behar duen garrantzia ematen ahalegindu beharko da.

Hainbeste bidai izanda, nola antolatuko dituzue bidaiak tartean?
Partiduak izango dira gure entrenamendu onenak eta baliagarrienak. Orokorrean, hiru egunetik behin jokatuko dugu eta azken egunean bi egunetik behin izango ditugu partiduak. Tartean bidaiatu eta jokatzeko denbora besterik ez dugu izango. Izan ere, partiduaren osteko egunetan indarrak berreskuratzeko egun batzuk beharko ditugu. Ezinezkoa da asteden garaiak gehiegi kargatzea, partiduek nahiko lan emango digute eta.

Hala ere, lehiara itzultzeko gogoa duzue?
Bai, izan ere, eskubaloi jokalariak bagara kirol honetan jokatzea gustatzen zaigulako da. Entrenamenduak gustatzen zaizkigu, baina partiduak jokatzea askoz gehiago. Alde horretatik, otsaila hilabete polita izango da partidu asko izango ditugulako.

Taldea denboraldi amaierako erronkei aurre egiteko prest ikusten duzu?
Taldea oso gogotsu dago. Oraindik taldea osatzeko jokalari batzuk falta zaizkigu, jokalari batzuk oraindik beren selekzioekin entrenatzen ibili baitira. Jokalari guztiak itzultzen direnean taldeak beste aurrerapauso bat emango duela uste dugu. Urtarrila batzuetan gogorra izaten da, entrenamendu asko izan ohi ditugulako eta partidu gutxi. Beraz, beste urrats bat egiteko gogoz gaude, otsailean sartu eta benetan lehiatzen hasteko.

HAMAIKA
- Erreforma integralak
- Diseinua eta interiorismoa
- Altzariak eta ekipamendua
San Markos Plaza 1, Hondarribia + 34 943 64 64 12 www.hamaika.com

ACUBIren bulegoak 1.989 kontsulta jaso zituen 2021ean





2021. urtean ACUBIk 1.989 kontsulta jaso zituen. Kontsulta horiek guztiak elkarteak Irunen duen bulegoan erantzun ziren, Hondarribiko Kasino Zaharreko bulegoa itxita baitago. Kontsulta ugarienak, 309, errentamenduekin lotuta egon ziren, eta ondoren, jabetza horizontalari eta komunitateei buruzko kontsultak izan ziren, 278.

Aurreko urteko kontsulta guztiak Irungo bulegotik erantzun ziren Hondarribiko Kasino Zaharreko bulegoak itxita jarraitzen duelako. ACUBIk Hondarribian ostegunero 10:00etatik 13:00etara eta hilabete bakoitzeko azken asteartean 16:00etatik 19:00etara eskaini ohi zuen zerbitzua. 2021ean, berriz, hondarribiarrek Irungo Palmera Montero guneko bulegora gerturatu behar izan dute, edo kontsultak telefonoz egin, edo posta elektroniko bidez bidali behar izan dituzte. Guztira, Irungo 1.709 biztanlek baliatu dituzte ACUBIko zerbitzuak eta erabiltzaile hondarribiarrak, berriz, 280 izan dira.

Ia urtero bezala, Irungo kontsulten artean 2021ean ere errentamenduei buruzko kontsultak izan ziren ugarienak, zehazki, 309. Horien artean, gehienak errenta berrikusketekin eta errenta ordainketa ezarekin loturik zeuden. Erkidegoekin loturikoak, aldiz, 278 izan ziren eta, oro har, gehien galdetutakoak ordaintzen ez duen bizilagun bati zorra erreklamatzeko prozedurarekin eta komunitatean obrak egitearekin zerikusia dutenak izan ohi dira. Hala ere, aurten gainera, Covid-19aren ondorioz, gehien kontsultatu den gaia bizilagunek akordioak hartzeko bilerak egiteko modua izan da.

Argi eta gas horniduren kasuan, kontsulta batzuk fakturekin lotuta daude, eta beste batzuk enpresa jakin batekin hornidura horiek kontratatzearekin, eta azken hilabeteetan faktura eta tarteak ulertzeko moduarekin.

Telefoniaren kasuan, berriz, ACUBIren bulegotik azaldu dute kontsulta gehienak fakturazioari buruzkoak direla. Aipatzekoa da gremioen kontratazioarekin (16) eta autoen kartela deiturikoaren balizko erreklamazioarekin lotutako kontsultak agertzen direla, 2006tik 2013ra bitartean erositako eta emakidadunen prezioen itunagatik kalte-ordaina (2.000 eta 3.000 euro artekoa) jasotzeko eskubidea duten ibilgailuentzat.

Aldi horretan, lurzoru klausulari eta hipoteka gastuei buruzko 103 kontsultari ere erantzun zaie. Kasu askotan, hipoteka berrikusten lagundu zaie kontsumitzaileei, lurzoru klausularik ba ote duten egiaztatzeko eta erakundeari erreklamatzeko gutuna idazteko, bai eta hipoteka kudeatzeko gastuak ere, eta balizko erreklamazio judizial bati buruzko aholkuak eman zaizkie.

Azpimarratzeko beste gai bat etxez etxeko salmentarekin eta internetekin lotutako kontsultak eta erreklamazioak dira, 2021ean 38 kontsulta izan baitira. Gogoratu behar da kontratazio horiek guztiek 14 eguneko epea dutela atzera egiteko, eta kontsulta askok zerikusia dutela epe horrekin, eta, batzuetan, ACUBIra erreklamazio bat aurkeztera joaten direla epe hori igaro ondoren, eta, beraz, aukera gutxi geratzen dela horiek ebazteko.

Zerbitzua jasotzeko modua

Gainera, bai Irunen zein Hondarribian kontsulta gehienak telefono bidez egin ziren, konkretuki, 953. Aurrez aurre egindako kontsultak, aldiz, 625 izan ziren eta posta elektroniko bidez bidalitakoak 411.

Aurreko urteetako joerari jarraituz, emakumeak dira orokorrean kontsulta gehien egiten dituztenak. Izan ere, 1.174 emakumek egindako 1.174 kontsulta jaso ditu ACUBIk 2021ean, gizonenek egindako 815 kontsulten aurrean.

Erreklamazioak Irunen

2021ean 403 erreklamazio erantzun dira Irungo gure bulegoan; horietatik 116 Hondarribiko kontsumitzaileenak dira, eta 266 Irungo kontsumitzaileenak. Gainera, Gipuzkoako beste udalerri batzuetako, Nafarroako 2 udalerritako eta Frantziako udalerri bateko 18 erreklamaziori erantzun zaie. Errentamenduei, hipoteken gastuei, bizilagunen komunitateei eta telefoniari buruzko gaiak dira Irunen arreta gehien eskatzen duten gaiak. Telefonia erreklamazioak eskaintza eta fakturazioa ez betetzeagatik egin dira; aurten, aseguruekin eta, batez ere, ezbeharraren izapidetzearekin lotutako erreklamazioak ere nabarmentzen dira.

2021ean, Dentix Klinika ixteagatiko erreklamazioen izapidetzearekin jarraitu dugu. Erreklamazio horiek lan handia ekarri diote ACUBIri, eta, kasu askotan, kontsumitzaile horiek Elkarteko abokatuaren aholkularitza ere jaso dute, bereziki konplikatuenak ziren kasuetan.

2018. urteaz geroztik ACUBIn kolektibo berezien errentamendu kontsultak erantzuten dituzte. Zerbitzu hori kolektibo gehiagori ireki zaie, baita Irungo Udaleko Gizarte Ongizateko Arloari ere, bai gizarte langileei. Bestetik, jantoki sozialak zerbitzu horietara jotzen duten pertsonak artatzeko aukera izatea eskatu du, etxebizitzaren errentamenduari buruzko aholkuak emateko (kontratuaren iraupena, errentarik ez ordaintzeagatiko egoera). Era berean, beste elkarte batzuk (adibidez, Kaleratzeak Stop) gure bulegora hurbildu dira gure aholkularitza behar duten pertsonekin. 2021ean 64 kontsultari erantzun zaie eta 13 erreklamazio izapidetu dira.

ESTUDIO FOTOGRAFÍA
GO VER™
Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100,2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

LEKAENEA LH4

Denbora-pasak

7 hitz: Santa Ageda

A	B	O	T	S	A	I	L	A	J	K	R	B	E	
T	W	O	N	V	A	I	I	O	N	L	Y	A	E	
Y	K	F	S	X	H	G	X	E	S	J	I	V	F	
D	O	E	V	T	F	R	K	Z	U	K	D	E	O	
P	P	B	W	Z	L	Q	J	B	A	M	P	N	T	
O	L	Y	E	F	E	O	R	N	Q	F	H	R	D	
R	A	F	H	C	Y	T	P	M	A	K	I	L	A	
V	F	K	E	J	B	C	K	N	Y	J	Z	I	G	
R	F	Z	B	S	B	E	Z	P	E	R	A	N	F	
W	E	U	Y	O	T	C	X	A	N	A	P	R	D	
L	L	V	Z	K	O	A	I	T	P	Q	O	E	O	
P	M	Q	H	L	U	R	R	A	X	I	M	M	U	
I	M	O	N	E	C	V	Y	Q	D	W	Y	E	U	
X	Z	O	T	F	B	L	T	G	X	V	F	V	S	

Otsaila, bost, kopla, makila, festa, lurra, bezpera.

						3		2
3						6	8	
	5	2						7
	6		7			8		3
				5	8			
8	7		6	3				4
5	2	6			3			9
				4		5		
	4	8	2		5			

GURE ATTONA DENARI

DOINUA: Gogoan daukat ez du aspaldi

Egilea: Igauri Lopetegi Amostegi

I
Korapiloan, korapiloan,
denbora luzez gordea,
ahoskatzeko nahiz ta ez izan
beharrezko adorea.
Ahotsa ahul, hankak alferrik,
beso bat guztiz morea.
Aspaldi heldu zen egoeraz
ohartzeko tenorea,
ohartu noski, ohartu gara,
ezin onartu ordea.

II
Sendi euskaldun batean sortu
arren erderaz hezia,
haurrengan alda zitekeela
zinen zinez sinetsia.
Tronpeta jole, kantari, bihotz
biguna bezain hertsia.
Bidasoako seme jatorra,
handik nekez bereizia.
Gizon arrunta izanagatik
guretzat zein berezia.

III
Zu zarenetik nik zenbat bildu
ote nezakeen nigan?
Zure zurezko zenbat ezpata
burdinezkoak bailiran
batera datoz Koxka txakurra,
Mimizan… denak segidan.
Oroitzapenak zer diren ni hau
berbizitzeko desiran:
falta zaizkizun hatz horiekin
sudurra kentzen zenidan.

IV
Pasodobleak, pauso motelak,
baso erdi bete ardo,
lehertzeraino tailerrean lan,
"gaur bazkaltzeko zer dago?"
Musean beti uzten ninduzun
aho zabalik zeharo,
mutikotutan "ama joan da,
tori bi sagardo trago!"
Guzti hau zara zu niretzako,
guzti hau eta gehiago.

V
Zer da adina, gazte garaitan,
Carpe Diem dela zina?
Zer da adina? Helduaroan
Tempus Fugiten samina.
Zer da adina? Orain karga bat,
bizitzeko lana, mina.
Zer da adina? Zenbaki soil bat
behintzat sasoiko bazina,
baina gaur ez da hala: bizitza
ez da herio adina.

VI
Pentsatuz "tira, oraindik ere
egin dezake hobera"
etxean denek gezurra dela
jakinagatik sobera.
Berandu baina noiz ez dakigun
datozen trenen antzera,
azkenaldian agurrak zuri
ataritik so atzera:
egun bakoitza bilakatu da
heriotzaren bezpera.

VII
Kausa ezgauza denez zurea
gurea dugu negarra,
baina, finean, ez al da hori
gelditzen zaigun bakarra?
Agortu zaizu izateari
eusteko azken oldarra.
Ta gorpu soil bat izan baino lehen
orain zarena: oharra;
gorputz batetik hauts bilakatu
arteko bizi hondarra.

VIII
Amorruaren sugarra eta
zure bihotzeko horma,
itzaliko da laster hainbeste
maitatu dugun gizona.
Pentsa ezazu zure pertsona
zenbateraino den ona,
zurea dela joana baina
pena ordea denona.
Besterik ezer ezin dut esan,
agur bihotzez Attona!

TOKI ALAI 3.DBH

EUSKARA, JALGI HADI!

Euskara,
jalgi hadi kalera.

Jendeak euskaraz jakin arren,
ez dira hizkuntza honekin
komunikatzen.
Nahiz eta euskaraz galdetu,
ez dute euskaraz erantzuten.

Euskara,
jalgi hadi eskolara!

Euskaraz hitz egingo bagenu,
oro ahaleginduko bagina,
ikasiko genuke,
Euskara zer den!

Euskara,
jalgi hadi futbolera!

Zenbait jendek uste zuten
euskaraz ezin zela jolastu.
Orain baietz dira konturatu,
eta euskaraz dira solastuko!

Euskara,
jalgi hadi pantailara!

Espainolek zuten uste
ezin euskaraz ezer egin,
guk frogatu diegu,
badaukagula kulturan,
serieak etal filmak,
geroz eta hobeak,
ikustaldi mordorekin!

Euskara,
jalgi hadi hodeira!

Gure wifi taupadak
inorenak baino hobeak
euskararengatik
gure mugikorra bezalaxe
ondo gordeta eta salbu
gure bihotz barnean!

Euskara,
jalgi hadi twitterra.

Txori urdin bat dago
nire mugikorrean,
ez legoke gaizki
honek euskaraz txiokatzea!

Euskara,
jaldi hadi XXi. medera.

Lehenengo gamerra
eta gero youtuberra
Eskolako lanak kalera,
bakarrik inporta ruterrak.

DBH 3: Alex Martin, Leire Agirrezabala, Iker Sujar, Itsaso Lekuona, Adrian Gonzalez

LGTBIQ+ komunitatea aztergai izango dute Maite Azabalek eta Uxue Diez-Guiralek Gazteartean bekan

Gazteartean Beka irabazi dute Maite Azabal eta Uxue Diez-Guiralek. "LGTBIQ+ gazteak Irunen: ba al dakigu zer dagoen?" lana aurkeztu dute deialdia irabazteko. Datozen hilabeteetan Irungo LGTB gazteen beharrak kontuan izango dituen gizarte sentikor eta inklusibo bat sortzeko ikerketa gauzatuko dute. Maitek eta Uxuek Irungo herritar gazteak proiektua ezartzearen onuradun izango direla pentsatzen dute.

Nola bururatu zitzaizuen Gazteartean Bekara aurkeztea?
Maite: Gazteartean Beka aurretik ezagutzen genuen. Aurtengo deialdia sare sozialetan ikusi genuen eta erronka onartzea erabaki genuen. Azken urteetan, bakoitza bere esparruan, ikerketa munduan ibili gara lanean, Uxue hezkuntzaren esparruan eta ni psikologiarenean. Deialdia ikusi genuenean bi esparru horiek elkartzeko aukera paregabea zela ikusi genuen eta horrela animatu ginen proiektua aurkeztera.

Ikertu nahi zenuten gaia hasieratik argi izan duzue?
Uxue: Egia da LGTB mugimenduarekin loturik aktibismo munduan ibili garela, esaterako, Ozen LGTB taldean egon gara, orain Bilbon daudenak. Gure aktibismoak gai hau aztertzeko gogoa piztu digu. Biok testuinguru horretan murgilduta egon garenez hasieratik nahiko argi izan genuen zein izango zen gure ikerketaren gaia. Maiterekin hitz egiten hasi eta segituan argi izan genuen nondik jo behar genuen, gaurkotasun handiko gaia delako eta, azken batean, garrantzitsua da.

Aurretik Irun mailan horrelako beste ikerketarik egin da?
Maite: Badakigu Irungo ikastetxeetan LGTB eta aniztasunaren inguruan ikastaroak egiten ari direla Asexora-T zerbitzutik edo Gehitu elkarteen bidez. Guk oraindik ez dugu aurkitu aurretik guk planteatutako gaiaren inguruan egindako ikerketarik. Horrek ez du esan nahi ez dagoenik. Agian egon badago, baina ez dago zabalduta eta, hala izatekotan, ez dago nahikoa zabalduta eta hori ere hausnarketa puntu interesgarria da.

Ikerketa hasi aurretik, arazoren bat edo aldatu beharreko zeozer identifikatu duzue jada?
Uxue: Aldatu baino, gure artean, uste dugu LGTB borrokaren eta ikerketaren arteko saretzea beharrezkoa dela. Noski, mila gai eta gauza daude ikertzeko, baina saretzearen garrantzia azpimarratu nahiko nuke. Ez dakit soilik Gipuzkoa edo Euskal Herri mailako arazoa den, baina nik faltan sumatzen dudan zerbait da.

Maite: Egun ikusten dugunez gizartean informazio asko dugu eskuragarri, baina LGTBIQ+ gaiaren inguruan nahasmen eta ezjakintasun handia dago halaber. Horrek eragin nabarmena du gure buruan eta azkenaldian gertatutako delituek hala erakusten dute.

Uxue: Gizartea oso polarizatua dago. Albiste faltsuez gain, sare sozialetan sasi informazio asko dago. Gorroto delituak hor daude eta horrek gazteen pentsamenduan eragina dauka. Gorroto delitu larriez gain, egunerokotasunean eraso eta injustizia asko daude.

Zeintzuk dira proiektuaren helburu zehatzak?
Maite: Irungo gazteria LGTBaren diagnostikoa egin eta errealitatea zehazteko. Helburua hausnarketa prozesu bat burutzea da, LGTB komunitatearen sentsibilizazioaz gainera, haien beharrak identifikatzeko. Horrela, gizarte inklusiboago baterako bidea erraztu nahiko genuke. Badakigu hori guztia proiektu bakar batekin ez dugula lortuko, baina behintzat urrats bat da.

Ikerketaren emaitzak zertarako balio izatea espero duzue?
Uxue: Printzipioz Irungo hiriarentzat abiapuntu bat izatea espero dugu. Ikerketan identifikatzen diren beharretan eta diagnostikoan oinarrituz, bestelako ekintzak egin ahalko direla uste dugu.

Ikerketa ikastetxeetara eramateko asmoa duzue. Nola egingo duzue hori?
Maite: Zuzenean ikastetxeekin harremanetan jarriko gara Irungo Udalaren eta Gazteria arloaren laguntzarekin. Badakigu pandemiarekin ikastetxeetan lanez gainezka dabiltzala, baina espero dugu gure proiektua haien interesekoa izan dadila.

Ikerketa genero-ikuspegi feministatik eta intersekzionaletik jorratu nahi duzue. Zer esan nahi du horrek?
Uxue: Guk ez dugu feminismorik gabe LGTBIQ+ borroka feminismorik gabe ulertzen. Historikoki biak oso lotuak egon dira eta elkarri bultzatzeko balio izan dute. Gure iritziz feminismoak inklusiboa izan behar du, ezin dugu feminismoa gorputz eta errealitate guztiak uztartu eta batu gabe aurrera eraman. Gazteen gorputz, errealitate eta pentsamenduak elkartu nahi ditugu, inklusibitatea bultzatzeko.

Urtebeteko epea duzue hori guztia egiteko. Nola antolatuko duzue denbora?
Maite: Lehenik eta behin eskoletara aurkeztu behar ditugun materialak eta edukiak prestatu behar ditugu. Beraz, horrekin hasi gara orain, galdetegiak idazten eta informazio orriak prestatzen. Ostean, ikastetxeekin harremanetan jarriko gara eta martxo erdialderako ikasleei jada galdetegiak pasata izatea espero dugu. Galdetegiak erantzun dituzten ikasleen artean batzuk aukeratuko ditugu "Focus group"-etan parte hartzeko. Emaitzak hurrengo kurtsoaren hasierarako prest izatea nahiko genuke.

Zeintzuk dira gizarte inklusiboago bat lortzeko egin beharrekoak?
Uxue: Saretzea funtsezkoa da. Horretaz gain, uste dugu bai estatu mailan zein maila txikiagoan legedia aldatzea funtsezkoa dela. Izan ere, egungo legediak ez ditu existitzen diren errealitate guztiak barne hartzen. Legedia aldatzeko beharraz ohartarazteko ezinbestekoak dira gurea bezalako ikerketak, horien abiapuntua hartuta gizartearen ahotsa islatzen baita bertan.

Maite: Gure ustez garrantzitsua da gizarte eragile ezberdinen elkarrekintza eta lan kooperatiboa eta koordinatua bultzatzea.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

Auzolandegiak programaren 2022ko kartela diseinatzeko lehiaketa

Zu izan zaitezke Auzolandegiak 2022 programaren kartelaren egilea eta sari bikain bat irabazi!

Auzolandegiak programarekin bat datorren kartel bat egiteko ideiaren bat baduzu, parte hartu. Kartelaren konposizioa piktorikoa, fotografikoa, digitala eta abar izan daiteke.Kartela aukeratzeko orduan epaimahaikideek kontutan hartuko dute lanen originaltasuna eta programarekin duen lotura.

Lanak aurkezteko epea: 2022ko urtarrilaren 21etik otsailaren 17ra, bi egunak barne.

Irudia: ilustrazioa, konposizioa edo argazkia programa irudikatzeko, JPG, SVG, AI... formatuan, 70 x 50 cm-ko neurriekin, bertikalean edo horizontalean, eta inprentan erreproduzitzeko adinako kalitatearekin.

Kartela pdf. edo jpg. formatuan bidali beharko da, eta, irabaziz gero, bestelako formatua eskatuko zaio (AI, SVG...)

Saria: Auzolandegiak programako kartel garailearen egileak, joan-etorriko hegazkin bidaia bat irabaziko du Hego Amerikako herrialde batera.

Baldintzak: Lehiaketan parte hartzeko unean 18-30 urte bitartekoa izatea beharrezkoa da.

Sarah Grandesen erakusketa Gaztelekuan

Qispi kay da Sarah Grandesen erakusketaren izenburua (Irun, 1995). Artistak, izandako amets batean oinarrituta, collage erako argazkiak bildu ditu eta, horien bidez, paisaia serie oso bat eratu du, irudi digitalen bidez nahi zuena adierazita eta islatuta. Gorputz-atalez osatutako paisaia bakoitza planteamendu surrealista bat da.

Sarah Grandesek argazki analogikoak erabilita ekin zion sorkuntza-prozesu honi, baina berehala pasatu zen formatu digitalera. Horrela, kalitate eta xehetasun-maila altuagoak lortzeaz gainera, aukera du collagean bizkorrago lan egiteko eta irudien gainean azkarrago «pintatzeko» eta, gainera, tamaina handira pasa ditzake xehetasunik txikienak ere (zimurrak, tolesturak, poroak, orbanak, ileak...), testura eta forma natural bilakatuta. Erakusketan 16 argazki bildu dira, hainbat tamainatakoak (A4, A3) eta, bakoitzaren ondoan, artistak berak idatzitako testu/olerki bat egongo da. Martindozenea gaztelekuan egongo da ikusgai, urtarrilaren 28tik otsailaren 26ra arte. Gainera, bisita birtuala egin ahal izango da Gaztearteanen webgune berritik (http://www.irun.org/gazteartean).

Gazteartean zerbitzuak webgune berria du

GazteARTEAN webgune berrian Gazteria arloko informazioa eta eskaintzen diren zerbitzu eta programak aurki daitezke modu erraz eta praktikoan.

Gainera, atari berri honetan familientzako eta gazteentzako beste baliabide interesgarri batzuk daude eskuragarri:

• Podcast: "Haurtzaro positiboa", haurrak garapen fisikoan, emozionalean eta kognitiboan errespetuz hezteko tresnak eskaintzen dituzten audioak.

• Erakusketen bisita birtualak.

• Jardueren agenda, Gazteria Sailak antolatutako tailer, ikastaro eta bestelako deialdiak.

• Newsletterra, gazteentzako interesgarria den informazioa duena, etxebizitzari, bekei edo enpleguari buruzkoa.

• WhatsApp zerbitzua kontsultak egiteko.

Webgunea edozein gailutatik ikus daiteke eta Gazteria zerbitzuak antolatutako programa eta jarduera guztiak zabaltzea du helburu. Gainera, komunikatzeko bideak zabaldu eta ekarpenak eta proposamenak jasotzeko aukerak erraztu nahi dira, jardueren eta proiektuen eskaintza hobetzeko asmoz.

Gainera, Gazteartean webgunearekin batera, iGazte webgunea berritu da, baina ohiko helbide berdinean aurkituko duzue: www.irun.org/igazte

Euskadiko Gazteak Lankidetzan 2022

Garapenerako ekintzak hegoaldeko herrialdeetan izaten dira, Amerika, Asia eta Afrikan hain zuzen ere. Esperientzia hiru hilabetekoa izango da, uztailetik urrira arte. Programa honen helburua da Euskadiko gazteen artean elkartasunaren balioak sendotzea eta garapenerako ekintzen inguruko sentsibilizazioa sortzea.

Zertan datza?
– Lankidetza-ekintzak Amerika, Asia eta Afrikako herrialdeetan
– Lankidetza Euskadiko eta helmugako herrialdeetako Garapenerako GKEekin
– Hiru hilabeteko iraupena, uztailetik urrira
– Gastuak Eusko Jaurlaritzaren kontura

Izena ematea: otsailaren 15era arte



Otsailak

3

Hitzaldia

Zer: Asier Arroita La fuentek Hong-Kong-etik Ortuellara bizikletaz egindako bidaia kontatuko du.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30etan.

Sarrera: Doan, gonbidapenarekin.

Gonbidapenak: Gonbidapenak Amaia KZn banatuko dira jarduera hasi baino 30 minutu lehenago.

Hizkuntza: Euskaraz.

5

Antzerkia

Zer: Xirriquiteula Teatre antzerki taldeak "Laika" ikuskizunean astronauta izan zen lehen txakurraren istorioa kontatuko du.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 17:00etan.

Prezioa: 5 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

6

Ricardo Requejo zikloa

Zer: Amaia Gomezek (flauta), Jesús Venturak (oboea) eta Jonathan Millak (pianoa) osatzen dute hirukote hau, eta C. P. E. Bach, J. Ibert eta J. M. Damaseren lanak eskainiko dituzte, besteak beste.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 5 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo Turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

10

Hitzaldia

Zer: Ana Zamorak "Entre Irán y El Cáucaso, hospitalidad" hitzaldian persiar herriaren abegi onaz hitz egingo du.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30etan.

Prezioa: Doan, gonbidapenarekin.

Gonbidapenak: Gonbidapenak Amaia KZn banatuko dira jarduera hasi baino 30 minutu lehenago.

Hizkuntza: Gaztelaniaz.

13

Kontzertua

Zer: Oskarbi talde beteranoak eta IGA Abesbatzak berariazko kontzertua eskainiko dute.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 5 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan

13ra arte

Erakusketa

Zer: Urrutiko ekialdeko musika-tresnen erakusketa, José Luis Loidi "Kote" eta Lourdes Yarzaren "Música para ver" bildumako musika-tresnekin.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordutegia: Asteartetik larunbatera 18.00etatik 21:00etara eta igande eta jaiegunetan, 11:30etik 13:30era.

Sarrera: Doan

Denbora-pasen emaitzak

A	B	O	T	S	A	I	L	A
T	W	O	N	V	A	I	I	O
Y	K	F	S	X	H	G	X	E
D	O	E	V	T	F	R	K	Z
P	F	B	W	Z	L	Q	J	B
O	L	Y	E	F	E	O	R	N
R	A	F	H	C	Y	T	P	M
V	F	K	E	J	S	C	K	N
R	F	Z	B	S	B	E	Z	P
W	E	U	Y	O	T	C	X	A
L	L	V	Z	K	O	A	I	T
F	M	Q	H	L	U	R	R	A
I	M	O	N	E	C	V	Y	Q
X	Z	O	T	F	B	L	T	G

J	K	R	B	E
N	L	Y	A	E
X	E	S	J	I	V	F
K	D	E	O
M	P	N	T
F	H	R	D
K	I	L	A
J	Z	I	G
E	R	A	N	F
A	N	A	P	R	D
T	P	Q	O	E	O
M	M	U
W	Y	E	U
X	V	F	V	S

1	8	7	5	6	9	3	4	2
3	9	4	1	2	7	6	8	5
6	5	2	3	8	4	9	1	7
4	6	1	7	9	2	8	5	3
2	3	9	4	5	8	7	6	1
8	7	5	6	3	1	2	9	4
5	2	6	8	1	3	4	7	9
7	1	3	9	4	6	5	2	8
9	4	8	2	7	5	1	3	6

all4móvil

Prezioak konparatuko ditugu zure ordez

Lortu tarifarik onena telefonia mugikorrean, finkoan, interneten eta telebistan

all4movil.com

Puiana kaleko 30. zenbakian gaude!

652 11 85 97 / 843 63 08 80

all4movil@all4movil.com